

Mank.

Sakanako Mankomunitatea

Kirol elkarteei doako monitore euskalduna, 2010-2011 denboraldirako, eskaintzeko deialdia

Xedea. Sakanako Mankomunitateak Sakanako kirol elkarteetan haur eta gaztetxoek jarduna euskaldun eta kalitatezkoa izan dadin, monitore euskaldun eta formatuekin lan egitea sustatu nahi du. Horretarako, denboraldi oso batean monitore kualifikatu eta euskaldun bat kontratatzeko laguntza eskainiko du mankomunitateak.

Antolatzaileak: Deialdi honen antolatzaileak Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua da.

Baldintzak. Hautaketa prozesuan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete behar ditu kirol elkarteak:

- a) Kirol elkarteak Sakanakoa izatea.
- b) Monitorea eskatuko duen taldearen haur kopurua 8-12koa izatea.
- c) Taldeetako haur eta gaztetxoek adin tartea 6-16 bitartekoa izatea.
- d) Zerbitzua euskara hutsezkoa izanen da. Alegia, monitoreak euskeraz jardungo du taldekideekin.
- e) Monitoreen ordainketa entitate eskatzaileak hartuko du bere gain. Alde guztietara ere, ez da lan-harremanik sortuko Sakanako Mankomunitatea eta zerrendako kideen artean. Ondoren dirulaguntza esleituko zaio taldeari.
- f) Ohiko begiralearen laguntzaile postua betetzea ere onartzen da, ez bakarrik erdalduna ordezkatzea.
- g) Aurreko denboraldietan dirulaguntza hau jaso duten taldeek ezingo dute berriro ere jaso.

Diru-laguntzaren zenbatekoa. Dirulaguntza 1000€-takoa izango da talde bakoitzarentzat eta ikasturte bukaeran banatuko da, ekainean, hasierako baldintzak betetzen direla ziurtatu ondoren. Kirol zerbitzuak jardun honetarako daukan aurrekontua, esleitzeko irizpideen arabera banatuko du.

Eskabideak. Eskabidea egiteko eredu orriak Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan jaso ahal izanen dira.

Sakanako Mankomunitatea

Uriz 38

31830 Lakuntza

Telefonoa: 948 464866

Faxa: 948 464853

E-posta: kirolak@sakana-mank.com/kirola@sakana-mank.com

Deialdian sartu ahal izateko eskabideak behar bezala beteta aurkeztu behar dira Sakanako Mankomunitateko erregistro orokorrean. Eskabideak aurkezteko 30/92 Legeak —Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak— ezarritako edozein era erabil daiteke.

Eskabidea egiteko epea: 2010eko urriaren 15a (2010-2011 ikasturterako)

Aurkezten direnek deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute eskabidean. Horretaz gain, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- a) Elkartearen **IFK** agiriaren fotokopia konpultsatua.
- b) **Eskabide orria** eta honi gaineratzen zaion galdetegia beteta
- c) **Balantze ekonomikoa**. Gastuak eta sarrerak partidaz-partida (materiala, monitoreak, kilometrajea etab.)

Balorazio Batzordea: Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko batzorde bat eratuko da. Hona batzordekideak:

- a) Sakanako Mankomunitateko lehendakaria (ordezkoa, berak izendatzen duena).
- b) Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari bat.
- d) Sakanako Mankomunitateko Kirol Batzordeko kide bat

Diru laguntzak esleitzeko irizpideak: Diru laguntza eskabideei buruzko ebazpen proposamena egiteko, eta beti ere aurrekontuaren arabera, Balorazio Batzordeak ondoko irizpideak izango ditu kontuan lehentasunak ezartzerakoan:

- a) 2010/2009 denboraldian talde horrek monitore erdalduna eduki izana, eta 2011-2010an euskaduna izatea, edo erdaldunari laguntzeko euskalduna gehitzea.
- b) Elkartearen tradizio linguistikoa: monitoreen hizkuntza gaitasuna, entrenamenduetako hizkuntza...
- c) Kirol elkarte bakoitzeko gehienez ere monitore bat esleituko da. Eskabide kopuruaren baitan epai mahaiak puntu honetan egokitzapenak egitea baloratuko du.

Hurrengo urtean esleitzeko irizpideak eta deialdia bera aldatu daiteke.

Helegiteak: Egintza honen kontra honako helegite hauek jarri ahalko dira:

- Berraztertze helegitea, egintzaren organo egile beraren aurrean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

- Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aurrean ebazpena jakinarazi eta hurrengo hilabetearen barrenean.
- Administrazioarekiko auzi-helegitea, bi hilabeteke epearen barrenean hura jakinarazi eta biharamunetik aurrera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailaren aurrean.

Lakuntzan, 2010eko uztailaren 9an

Sakanako Mankomunitateko Kirol zerbitzua

DIRU LAGUNTZA ESKABIDEA

I. Eskatzailearen datuak:

- ✓ Izen-abizenak:
- ✓ NA:
- ✓ Helbidea:
- ✓ Posta kodea:
- ✓ Herria:
- ✓ Telefonoa:
- ✓ Faxa:
- ✓ E-posta:
- ✓ Ordezkatzen duen erakundearen izena:
- ✓ Erakundearen IFKa:
- ✓ Kontu korrontearen zenbakia:
- ✓ Jardueraren izena:

II. Eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Elkartearen IFK agiriaren fotokopia konpultsatua.
- b) Eskabide orria eta honi gaineratzen zaion galdetegia beteta
- c) Balantze ekonomikoa. Gastuak eta sarrerak partidaz-partida (materiala, monitorea, kilometrajea etab.)

Mank.

Sakanako Mankomunitatea

GALDETEGIA:

✓ Haurren izen abizenak, adina eta eredu linguistikoa

✓ Talde kopurua

**✓ Monitore euskaldunen izen abizenak:
Erdaldunen izen abizenak:**

✓ Entrenamenduetan erabilitako hizkuntza

Oharra: Balorazio batzordeak argibide gehiago behar badu elkarteari eskatu ahal izango dio.

✓ Begiraleak egin dituzten formazio ikastaroak

Data eta sinadura